

SAN FRANZISKO JABIER-KO

INDIETAKO APOSTOLUARI ALABANTZAK.¹



Ama Eliza Santaren Buru eta Guraso tartean,
Jaunaren itza ukatu eta zalkea sartu naiean
Lutero eta bere lagunak alchatu ziradenean,
Sortu zan umant miragarri bat Pirineoen oñean.

Franzisko deitzen zitzaion eta, argia ikusi zuan
Guraso noble batzuetatik Naparroko erreinuan,
Jabier izena duen erriko anziñako gazteluan,
Zeñak gazterik echea eta gauzak lajatu zituan.

Berez zintzoa, buruz ernea, eta biotzez biguña;
Ikasoletan arkitzen zanik ikaslerik bikañena.
Aurreratu zan ainbesteraño, ezikan maisu egiña,
Laster izan zan bere lagunai erakutsitzeko diña.

Ezaguturik zeñen laburra, igeskorra dan mundua,
Utzi zituan ondasun eta etorkizun parretsua;
Eta modesti, umiltasun ta birtutez chit apaindua,
Artu zituen asmo sendoak irabazteko zerua.

San Inazio Loyola-koren konpañian sarturikan
Oñez juan zan Italiara milla pena pasarikan,
Non artu zuen bendizioa, Aita Santuagandikan,
Bere oñetan negar malkoak isurtzen ziolarikan.

(1) Poesía premiada con accésit en el certámen literario celebrado en Pamplona en Julio de 1882.

Geroztik aren bizimodua zan, ondasunaen ordez,
Jaungoikoaren izen santuan bildutzen zuena janez;
Panparroikeri, aunditasun ta tratu oncho baten partez,
Barau aundiak, zilizio ta penitenzi asko ziñez.

Gaztelu eder dorrezko eta oi biguñaren lekuan,
Echola otza, lasto utsa ta... arria oitzat zituan:
Bere biotza paraturikan Jaungoikoaren eskuan
Indietara fedegabeak konbertitzera zan juan.

Baña, ¿zér pena eta zer neke irago bear ez ditu?
¿Zér neurri eta buruzbideak ez dira bearco artu,
Basa-umeaz¹ beteak dauden erriak bear baditu
Bere itz eta Gurutze utsaz Jaunarengana biurtu?

¿Nola atrebitu Berri-onaren soñua tronpetaz jotzen?
Aserraturik, denak batean ¿alchatuko etziraden,
Ikusirikan euren jaungoiko palsoak lurreratutzen?
¿Perill aundian aren bizia sarri arkituko etzen?

Jaunaren esku ikuseziñak egite gaitzetarako
Berezi zuen, barren garbia zuela zekielako;
Eta zeruen serbizioan ill ere nai zuelako
Izutzen zuen lanikan etzan biotz aundi arentzako.

On asko egiñ ondoren irten zuen bada Erromatik
Podoreakin, Lisboarako, eskean eta oñutsik,
Etzuen artu Erregek emen eman nai zion gauzarik,
Zeren beartsu beti izateko promesa zeukan egiñik.

Ontzian sartu zan beziñ laster, bizitza zuzenarekin,
Konseju sendo, errierta zur karidadezko itzakkin,
Atzerritutzen ditu andikan ernegu, birau, itz zikin
Eta oitura gaiztoak, Aita baten maitagoarekin.

Bidaje luze, nekatsu artan ontzi mutillik geienak,

(1) Bárbaros.

Gaisotzen dira, eta Franziskok, kontuan daukazki danak;
 Au konfesatu, ura sendatu, ari zuzendu itz onak,
 Konsuelozko Aingeruchoa zuten iltzen zegoztenak.

Bidean erri asko biurtzen ditu Jaunaren federa,
 Deabruaren mendetik kendu eta zeruko bidera;
 Eta milla lan iragorikan allegatzen da Obara,
 Indietako lurreen zanik erririk gaiztoenera.

Arri eta zur egiñikan zan gelditu ikusitzean
 Erri basati aren galgiro izugarriak aurrean:
 ¡Zenbat anima, ala emen non Ganjestik beste aldean,
 Arkitzen ziran beti betiko inpernuaren mendean!

¡Zeñen gau beltzak zeukazkiten ¡ai! erri aek illunpetan!
 ¡Zeñ lauso lodi eta illunak setatsuro begietan!
 ¡Zér bakigozko¹ naspilla etzan egongo iskin aetan,
 Emen judua; or, fedagea; jaungoikorik gabea, an:

Jainko palsoak gurtutzen emen; arago berriz Maoma
 Eta arontzago erlijio ta federikan ez duena!
 ¡Zér ikusgarri gogorra etzan izango jende aena!...
 Ona zer bide zabal ta latza dan Franzisko Jabierrena.

¿Uste dezute, oek guziak au ikaratzen dutela?
 Eragozketak eta perillak garaitu ez ditzazkela?
 Izurri eta beroak eziñ suprituko dituela?
 Odolgirozko pizti ta gizon iltzalleen bildur dala?

¡Bai zera! pozez eta kontentuz dio lanari ekiten!
 Jan guchi eta lo guchiago dituelarik egiten:
 Eliz, kale ta leku danetan asitzen da predikatzen,
 Presondegi ta eritegitan tristeak poztu erazten:

Alchatzen dira jainko palsoen buru egiten dutenak;
 Gaitz nai diote, ill nai luteke; baña nasten ditu danak:

(1) Zismazko.

Biguntzen ditu biotz gogorrak Jesukristoren dotriñak,
Eskolatutzen chit maitatsuro urbildutzen zazkionak.

Eta denbora labur batean Bataioko urarekin
Biurzen ditu kristandadera, euren erri guziakin,
Amar Errege, eta Erregiñ milloi bat geiagorekin:
Asko dierri argitzen ditu Jaunaren Berri-onakin.

¿Zeñek ordea ematen dio Apostolu azkarrari
Alako indar, pazienzi ta birtuteak aiñ ugari?
¿Ote dirade gizon uts baten lanak ainbeste mirari?
Zerutik jaunak biraldu duen Aingeru bat ez dirudi?

Ez dakit; baña egiaz, aren ichura aundiagoa du;
Zerenitsuak, mutuak eta gorra sendatutzen ditu;
Gertakizunen berri badaki, eun izkuntza baditu,
Eta, azkenik, Jesusen gisa, ill obiratuak piztu.

Bere podore dena Jainkoak eman zion, duda gabe,
Mundu-berria biurtu zezan Eliza Santaren alde;
Baña oraindik Santu aundiren asmoak bete ez dirade,
Chinara doa, argirik gabe an ere milloika daude.

¡O zeñen fede arrigarria! zeñen esperanza aundial
Neurrigabea zan arek zuen karidade izekia!
Beto, —Jaunari esaten zion— gaitzak eta miseria,
Aize pozoitu, tormentu eta.... baita ere onkeria.¹

Baña Jainkoak erabakia zeukan Chinaren aurrean,
Ainbeste neke pasa ondoren, Sanziango ondar errean,
Asken asnasa eman zezala lur larruturen gañean,
Nork begiratu etzuelarik, osoro bakardadean.

Eta jakiñik zeñ egun eta ordutan ill bear zuen,
Jesusekin ta Mariarekin etzan izketan gelditzen,
Esanaz:—Jauna, zuregan beti esperanz aundia nuen:—

(1) Martirioa.

—Maria, nere ama maitea: lagun zaidazu orainchen.—

Modu onetan gozoro zuen eman bere espiritua,
 Eta saritzat artu Betiko Aitagandikan zerua.
 Anchen, doatsu danen erdian, makurturikan burua,
 Para zitzaion, Santu guziak duten argizko korua.

¡Zenbat lanbide pasa ziñuzen gizatasunaren alde!
 Zenbat jaungoiko falso zugatik lurrean betiko daude!
 ¡Zenbat urbazter, uribitarte, dierri, erri ta jende
 Zure prediku paregabeaz kristau biurtu dirade!

¡O San Franzisko Jabier aundia! eska zaiozu Aitari,
 Ondo begira dezakiola gure Erreiñu tristeari;
 Izan dezala kupida gutaz eta birali ugari
 Zoriontasun eta atsegiñak Euskal-erri maiteari.

OTAEGI-KO KLAUDIO.

LA CAZA EN NABARRA

EN LOS TIEMPOS PASADOS.



(CONTINUACION.)

En el «amejoramiento» del mismo Fuero, hecho por el Rey D. Felipe, se dispone tambien que nadie ose coger ni matar perdiz «depues que emezen de poner ata que ayan sacado los fillos; et qui quiquiere que las matare, ó las tomare los huevos, pague de colonia LX sueldos al Rey.»

Los reglamentos de caza que contiene el Código Foral nabarro, llenaban, pues, las necesidades de la época en tal materia, y preveían la mayor parte de los casos que pudieran ser origen de contiendas entre las diversas clases sociales.

No creemos, por lo tanto, rigurosamente exacta la afirmacion del sábio Mr. Paul Lacroix (le Bibliophile Jacob); cuando en una de sus